

ZERTARA GATOZ...

Horra hor lehendaurrezko kezka eta arrangura. Zuzenbidearen Euskal Akademiak bere burua agertu du, apal, lasai, zuzenbidearen munduan euskal juristen ahaleginak bildu nahian.

Beharrezkoa ote? esango dute askok. Berori bultzatu dugunontzat eratu beharrezkoa, Euskal Herrian zuzenbidearen jakintza eta aurre-rakuntza ziurtatzeko legelari guztion jardunarekin. Guztiona eta guztizkoa, gehi dakioke ekimen honi, bertan partaide izan nahi duen jurista orok abegi eta harrera ona izango baitu.

Orokorregiak gure asmoak? Zalantzarik gabe, ez. Giza sorkuntza den guztietan, on-gaitzak nabarmen daitezke. Elkarre berri honek ere, nahiak eta gogoak, egitasmoak eta helburuak erakutsi beharko ditu. Horiek betetzea izango da gure lehen eginkizun eta norabidea.

Zaharrak berri, azalduko du norbaitek, aspaldiko kontuei men eginez eta aurretiaz izan diren antzeko saioak gogoratuz. Berriak berri erantzungo diogu guk, sorkuntzatik bertatik jokaera eta lerrakera zehatz batetik abiatuko baikara gure ekimenean.

Euskal sor-marka dugun juristok abagune ezin hobea dugu akademia berri honetan, sarri-sarri aldentuta ibiltzen diren mundu teorikoa eta praktikoa uztartzeko. Bide beretik ere, bertan dago lekurik apropo-sena, maiz sakabanaturik igartzen ditugun legelariak, adar batekoak eta bestekoak, elkartu eta lanean jartzeko, euskal gizartearen egungo premiei erantzun egokia emateko asmoz.

Zertara gatoz... jarri dugu hasieran, hiru puntu horiekin geroko azalpenari bidea errazteko. Bada, jakina izan dadin ez gatozela domina eta ohorezko karguak banatzera; lanak, gogoetak, asmakuntzak, lorrak

eta nekeak ematera baino. Alfer-alferrik etorriko da gure baitara oho-
rezko eta sona handiko aipamenak bilatzen dituena. Beste ate batean jo
beharko du horrek. Betoz guregana lan egin nahi dutenak, ikerkuntza-
rako eta hobekuntzarako garra erakusten dutenak, akademia bizi-bizian
ibili nahi duten jurista jakin-mintsu horiek.

Bagatoz, hortaz, lan egitera, eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako
juristei lantokia eskaintzera. Orobat, lehen esan legez, eurei beharlekua
ematera, eurok zirikatu eta kitzikatzen. Anitzak dira zuzenbidearen arlo-
ak; askoz anitzagoak, ordea, alor horretako legelari bereziak. Horiek ere
gure helmenean izan nahi ditugu, akademiaren sail eta batzordeetan lan
egin dezaten.

Ezina iritziko diote askok, bulegoko lana bazter utzita, halakoe-
tan sartzeari. Bego hori. Tarterik txikiena, solasaldirik apurrena ere baliat-
tu nahi dugu, euskal legelarion ekarriak bideratzeko. Bakoitzak ahal duen
neurrian eta ginoan, bakoitzak jar dezakeen adonearen arabera. Trukean,
bistan da, akademiaren emaitzak eskaini nahi dizkiogu legelari
horri, onuragarri gerta dakizkion eguneroko zereginetan.

Baditugu lehentasun batzuk, gure ustez Euskal Herriak berak
markatzen dituenak. Hartara, euskal zuzenbide publikoa nahiz pribatua
jorratuko ditugu, Ekonomi Ituna eta finantza-zuzenbidea ere ahantzi
gabe. Berebat, kooperatiben eta merkataritza-zuzenbidearen saila, ber-
tan baitago euskal enpresa frankoren etorkizuna. Euskara ere, gure aha-
leginen xede dugu, euskal hizkera juridikoaren moldakuntza indartu eta
sakontzeko. Zernahi gisaz, zabalik gaude akademia bera bestelako sail
eta esparruetara hedatzeko, bazkideok hala erabakiz gero.

Bada, beraz, zer jorratu eta nondik heldu. Hasiak gara, dagoe-
neko, urratsak ematen. Hasian hasi, dei zabala egin nahi dizuegu euskal
juristoi, erakunde berri honen sorreran laguntzaile eta protagonista izan
zaitezten.

Helburuak eta eremuak aipatu ditugu gorago. Batzuk eta beste-
ak ezin bazterrean utzi, Zuzenbidearen Euskal Akademia abiapuntuan
dugun honetan. Abiapuntuak, argi dago, abiaburua dakar, eta guretzat
zin-zinezko bultzagile eta eragile izan da Euskalerriko Adiskideen
Elkartea. Haren espirituak eta gogoak gidatu gaituzte. Haurgintza-mine-
tan babesle egokia izan zaigu bera. Eskerrak ematea, hortaz, zereginik
lehenena; hurrena, aldiz, eskabide berbera, haren babes eta laguntzare-
na, jaiotzeko ez ezik, bizitzeko ere behar dugulako hura. Azkena, ageri-

koa denez, bi erakundeon arteko harreman estuak eta ongarriak gordetzeko konpromisoa.

Irurac bat goiburua jarri zioten hari, duela bi mende eta erdi. Irurac bat aldarrikatu nahi izan dugu, beste behin ere, Zuzenbidearen Euskal Akademiaren eratze-prozesuan dihardugunok, bat horretara baten baitira, Euskalerriko Adiskideen Elkartearekin batera, unibertsitateak eta lanbide-elkargoak, epaile, abokatu, prokuradore, notario nahiz jabetza-erregistratzaileak. Elkarrekiko jardute horretan dago, ezbairik gabe, akademia honek euskal gizarteari egin diezaiokeen mesederik aipagarriena.

Isil bitez hitzak. Betoz ekintzak. Hona gure gonbita, Zuzenbidearen Euskal Akademian elkarrekin lan egiteko luzatzen dizueguna. Zuen esku dago, oraingoan, baieztatu erantzuna ematea, eurrez eta zabal.

Andres Urrutia